



## **VERTER RECYCLING-EK EZ DAKI ZABORTEGIA ERORI IZANAREN KAUSA ZEIN DEN**

*Zaldibar, 2020ko otsailaren 17a.* Hedabide batek argitaratu duen informazioaren harira (enpresari egozten dizkio istripuaren balizko kausen gaineko adierazpen batzuk), enpresak jakinarazten du ez duela halako adierazpenik egin eta ez dakiela zabortegia erori izanaren kausa zein den.

Teknikarien lana izango da kausak identifikatzea, ikerketa xehatu baten bitartez, eta enpresa bete-betean ari da lan horietan laguntzen. Egun, lehentasuna Joaquín eta Alberto erreskatatzeko eta lurra egonkortzeko lanak dira. Enpresak kontratatu dituen adituak Jarraipeneko Batzorde Teknikoaren zerbitzura daude, halako lanetan dituzten ezagutzak eta esperientziak azaltzeko.

Verter Recycling *online* oharrak: [www.verter.eus](http://www.verter.eus)

*Informazioa: Arturo Zubiaga*

*Telf: 94 415 86 42*